

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkateak ebatzitako eskumen eskuordetzeak

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 43. eta 44. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Amurrioko Udaleko alkate-lehendakariak ebatzitako eskumen eskuordetzeak argitaratzen dira.

2019ko urtarrilaren 22ko 19/015 Dekretu bidez, eskumen eskuordetze hau egin zen: 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.c) artikuluan 21.3 artikuluari lotuta ematen dizkidan ahalmenez baliaturik, Txerra Molinuevo Laña zinegotziaren esku uzten ditut idatziz, alkate naizenez, dagozkidan egiteko guztiak, harik eta berriro laneratzen naizen arte.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Amurrio, 2019ko urtarrilaren 24a

Jarduneko alkatea
TXERRA MOLINUEVO LAÑA